

# AURREZTEA, NEGUARI AURRE EGITEKO

Neguan gastuak murrizteko aholku errazak

Denok dakigu elektrizitatearen eta gasaren prezioak gora egin dutela gaur egun, eta familiek zailtasunak dituztela etxeko fakturak ordaintzeko. Gakoa da gure kontsumoak ahalik eta gehien murriztea erosotasunik galdu gabe, gutxiago ordaintzeko eta gero eta eskasagoa eta garestiagoa izango den baliabide baten hain menpe ez egoteko.

## 3 aholku gasa aurrezteko



### Kontuz ur beroarekin!

Jarri al duzu inoiz ur beroa eta ia erre? Jaitsi zure galdararen tenperatura ur beroa eta hotza ez nahastu behar izateko. Ez erretzeko ur hotza erabili beharra baduzu, ura gehiegi berotzen ari zara!

Era berean, tenperatura jaitsi dezakezu platerak garbitzeko eta harrikoa egiteko.



### Nola berotu, hala gastatu.

Berogailuak eragiten ditu etxe bateko gasaren gastuen ia erdia.

21°C-ko tenperatura gomendatzen da egunean zehar egoten garen geletarako. Inor ez dagoenean edo gauean, 17°C-ra jaitsi daiteke.

Berogailua topera jarri ordez, jantzi arropa gehiago eta jarri burletak aire hotza sar daitekeen lekuetan.



### Aprobetxatu beroa janaria prestatzean.

Labea erabiliz gero, amaitu ondoren utzi irekita, hondar-beroak etxea berotu dezan.

Erabili teontzi bat ura azkarrago berotzeko, eta estali lapikoak.

Erabili gehiago mikrouhin-labea! Askoz ere efizienteagoa da!

# NEGURIK ILUNENA

Kontrolatu gasa aurrezteko eta hotzik ez pasatzeko

Nolako izango da datorren negua? Nola eragingo digute gasaren prezioek? Eta zer egin dezakegu neguari aurre egiteko behar baino gehiago ordaindu eta erosotasunik galdu gabe? Oraintxe esango dizugu!



## Negu energetikoaren 3 gakoak

### GASAREN PREZIOA

Gasaren hornidura- eskasia dela eta, prezioak inoiz baino gehiago igoko dira.

### ARGIAREN PREZIOA

Argiaren prezioa gasaren prezioarekin lotuta dagoenez, hura ere izugarri igoko da.

### OPTIMIZATZEA

Gure kasuan, gure aliatuak hauek dira: termostato adimenduna eta galdara programagarria.

## Faktura murrizteko 3 aholku

### 1 Bilatu gehien interesatzen zaizun tarifa

Entzun al duzu inoiz Azken Errekurtsoaren Merkaturatzaileari (AEM) buruz? Merkaturatzaile nagusien bitartez izena eman ahal izango duzu; horixe izango da negu honetako aukera ekonomikoena.

### 2 Hobetu zure energia-ohiturak

Nola aireztatzen duzu etxea? Erabiltzen dituzun ohe-jantziak egokiak dira negurako? Galdera horiek egin beharko zenizkioke zeure buruari, kW merkeena kontsumitzen ez dena baita!

### 3 Berogailuaren erabilera zuregana egoki dadila

Etxea tenperatura berean mantentzen duzu egun osoan? Agian, behar baino gehiago kontsumitzen ari zara. Termostato adimendun batean inbertitzeko garaia da, berogailua egokitu dadin zugana.

# EZ OSO BERO, EZ OSO HOTZ

Egokitu temperatura zure gelen egoeren arabera

Berogailuaren kontsumoa kontrolatzeko, hasteko temperatura zure premietara egokitu beha da.

## EZINBESTEKOA: TERMOSTATO PROGRAMAGARRIA

Zure termostatoa programatuz gero, temperatura aldatu ahal izango duzu asteko eta eguneko unearen arabera.

**i** Bidaiatzera zoaz? Itzali berogailua eta etxeko ur beroaren sorgailua

## EGUNEROAN EGOTEKO GELAK



**20-21°C**

jendea  
daudenean

**16-17°C**

hutsik  
dagoenean



**20°C**

hutsik daudenean eta  
gavean

**17°C**

haurrak dauden  
gela baterako

## LOGELAK



## KOMUNA



**22°C**

jendea dagoenean

**16-17°C**

hutsik dagoenean